



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA  
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

# ETXETIK PLAZARA

## EUSKAL MITO ETA KONDAIRAK

**SARIA:**

Lesakako  
Linddurrenborda  
sagardotegian bi  
lagunentzako  
otordua

2015eko ILBELTZA

141. ALEA

# IRAKURLAN

## Bizitzaren eskolan

Sortu zenetik gizateriak gertaera bakoitzarentzat kausa edo egilea aurkitu nahi izan du, eta kontsiderazio horiek dira mitologia eta erlijioaren mamia. Mitoak, bizitzako eta unibertsoko misterioak argitzeko saio adimentsuak dira. Neurri batean, zientzi teoria modernoek parekoak direla erran liteke.

Munduko mitologia guztien funtsezko alderdi bat, bakoitza bere erara gizateriaren sorrera argitzen saiatzen da. Kultura anitzetan gizakien arbasoak animaliak izan direla kontsideratzen da. Pirinioetan, adibidez, hartza hartu izan da gure arbaso zaharrentzat.

Inork ez du zalantzarik mitologiaren behar didaktikoaz. Mitoak, nolabait erran, gizarteak egoki funtzionatzeko zeuzkan arauen multzoa izan dira; bai gizakiak elkarrekiko eta bai gizakiak naturarekiko ongi funtzionatzeko arau-multzoa.

Baina mitoak gure eran ez, arrunt bestela adierazten dira. Arazo gatazkatsuak planteatzen dituzte: txarkeria, mendekua, ihesa, jazarpena, debekua... Kontraesanak ere maiz aurkezten dituzte: bizitza eta heriotza, arra eta emea, gaztetasuna eta zahardadea, miseria eta oparotasuna. Beren erara, istorio mitologikoez arazo hauek guztiak konpondu egiten dituzte. Gure barne-unibertsoko irudi nagusiak ere deskribatzen dituzte: heroia, ama, jakintsua, etab.

Bestetik, mitoak ez dira liburuan idatzitako istorio aspergarri edo entretenigarriak, hots, mendeetan zehar berdin irauten duten zerbait. Mitoak ez ziren horretarako sortu. Mitoak egunero egiten dira; kontatzen diren eta entzuten diren istorioak dira. Berriz osatu eta etengabe aldatzen dira, narratzaileak edo entzuleak une horretan duen ikusmoldearen arabera. Irudimena kitzikatzen dute eta horretan dautza beren indarra eta arrakasta. Arras bizi eta dinamikoak dira.

Hala ere, sinesteak eta mitoak gure garaira arte aldatu samarrak heldu zaizkigu. Orain duten edukia ez da iraganean zutenaren berdina. Kristautasuna ezarri zenean antzinako sineskizunen mundua errotik aldatu zen, nahiz eta erabat aldatu ez; Pirinioetako inguruetan gizon eta emakumeen ikusmoldeetan sustraituegiak baitzeuden. Erlijio berriak, egia erran, bere egin zituen antzinako errito eta usadio anitz, baina mitologiako pertsonaiak erabat aldatu ziren. Iraganeko jeinu eta jainkoak, esaterako, gehiengotan izaki gaizto bihurtu ziren. Baina aldaketan eragina izandakoa ez zen kristautasuna bakarrik izan. indoeuroparren, erromatarren eta abarren kulturak ere saiatu ziren horretan.

Mitoak herrien nortasun ezaugarriak direla erran liteke, eta nolanahi ere, ez dugu alde batera utzi behar esaldi hau: Izena duen guztia omen da. Batek dakil!



# LAN ETA LAN

## MAIZTASUNA ADIERAZTEN DUTEN ZENBAIT ESAPIDE

|                         |                                             |
|-------------------------|---------------------------------------------|
| Egundaino, egundo _____ | EGUNDAINO ez dut horrelakorik ikusi.        |
| Sekula ez _____         | SEKULA ez zuten horrelakorik egin.          |
| Inoiz ez _____          | GU INOIZ EZ ginen horrelakoetara joan.      |
| Behin ere ez _____      | EZ dut BEHIN ERE asmatu.                    |
| Inoiz gutitan _____     | INOIZ GUTITAN ikusten da horrelakorik.      |
| Gutitan _____           | Hagitz GUTITAN hitz egin dut berarekin.     |
| Noizean behin _____     | NOIZEAN BEHIN ongi dago horrelakoak egitea. |
| Noizik behin _____      | NOIZIK BEHIN etortzen dira herrira.         |

Orain honako ariketa honetan irakurgaiaren diren hainbat esaldi aurkituko dituzue; denak ez, ordea, bertan agertzen diren bezala. Hauxe izanen da zuen lana: zein den Egia eta zein Gezurra argitzea.

- 1.- Kultura anitzetan osabak animaliak izan direla kontsideratzen da.
- 2.- Mitoak, nolabait erran, gizarteak egoki funtzionatzeko zeuzkan arauen multzoa izan dira.
- 3.- Beren erara, istorio mitologikoek ez dituzte arazoak konpontzen.
- 4.- Mitoak liburuan idatzitako istorio edo entretenigarriak dira mendeetan zehar berdin irauten duten zerbaite.
- 5.- Mitoak egunero egiten dira; kontatzen diren eta entzuten diren istorioak dira.
- 6.- Irudimena kitzikatzen dute eta horretan dautza indarra eta arrakasta.
- 7.- Gure garaira, sinesteak eta mitoak ez zaizkigu aldatuta heldu; berdin-berdin baizik.
- 8.- Kristautasuna ezarri zenean antzinako sineskizunen mundua errotik aldatu ez eta bere egin zituen.
- 9.- Iraganeko jeinu eta jainkoak, esaterako, gehienetan izaki goxo bihurtu zituen.
- 10.- Mitoak herrien nortasunaren ezaugarriak direla erran liteke.

|     | E                        | G                        |      | E                        | G                        |
|-----|--------------------------|--------------------------|------|--------------------------|--------------------------|
| 1 - | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 6 -  | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 2 - | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 7 -  | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 3 - | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 8 -  | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 4 - | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 9 -  | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 5 - | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 10 - | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |



## EUSKAL MITOLOGIAKO PERTSONAIAK I

Euskal mitologia hagitz aberatsa da eta pertsonaia anitz ditu. Gaur batzuk aurkeztu behar dizkizugu ea behean agertzen diren izenekin parekatzen dituzun.

1.- Jainkosa nagusia da, Ama Lurraren irudikapena, izadiaren eta bertako elementu guztien erregina da. Izen ezberdinak hartzen ditu Anbotoko Dama, Aralarko Dama, Txindokiko Dama. Gehienetan, emakume gorputza izanda irudikatu izan ohi da, dotore jantzita. Sugaar da bere senarra, sorginak bere gurtzaileak dira eta bi seme ditu: Mikelats eta Atarrabi, ongia eta gaizkiaren irudikapenak.

2.- Oinarritzko astroa, Lurraren alaba. Alegi anitzetan azaltzen da: herio (hildako arimak babesten ditu), itsasogintza (marea gora-behereak eragiten ditu), nekazaritza (egur mozketa eta landaketak bere posizioaren arabera egiten dira) eta abeltzaintzari (animalien ernaltze eta erditzean eragiten du) lotua.

3.- Lurraren alaba da. Egunero ibilbidea egin ostean lurrera joaten da. Jainkoaren begia da. Baserriko atarietan eguzkiloa jartzen dugu bere omenez.

4.- Lur azpian bizi da, eta leizeetatik nahiz zuloetatik kanporatzen da. Mariren senartzat daukate. Deabru gaiztotzat hartzen dute Betelun (Nafarroan) eta Ataunen diote gurasoen esanak betetzen ez badira pertsonaia honek zigortu egiten duela. Leku batzuetan kontatzen dute tximistak bezala zeharkatzen duela zerua, burua eta buztana sutan dituela.

5.- Basoan bizi da, Olentzerorekin batera, bizirik geratu zen azken jentila. Sinesmen batzuetan, Basandere du emazte. Gizakiaren aurretik nekazaritza ezagutzen zuen eta hainbat gauza erakutsi omen zizkion: zerra gaztainondoaren hostoa bezalakoa dela; boluaren ardatza haltzaren zuraz egin behar dela; burdina soldatzeko lohia erabil daitekeela... Artzainari artaldea zaindu ere egiten dio.

6.- Erreka zuloetan egoten dira ilea urrezko orraziaz orrazten. Leku askotan ahate oinak dituzte, baina Ibaizabal inguruan eta Euskal Herriko kostan arrain buztana dute. Oso ederrak dira, eta gizakumeak liluratzen dituzte.

7.- Izaki begibakarra eta erraldoia da. Haitzuloetan bizi da eta jendea harrapatu eta jan egiten du.

8.- Euskal mitologiako izakiak dira, kristautasunaren aurreko euskal herritar paganoak sinbolizatzen dituenak. Erraldoiak eta indartsuak dira, eta etsaiei harri handiak botatzeko ohitura dute. Haiek eraiki dituzte zutarriak eta harrespilak.

9.- Lur barruan bizi den eta menpean morroi asko dituen iratxo da. Kristautentzat, Deabruaren beraren berrargitaratzea da, eta horregatik apaizek era guztietako gehiegikeria sexualak eta abarrekoak leporatu dizkiete.

10.- Gizakiei beren lan harrigarrietan laguntzen dieten ahaide txiki-txikiak dira. Praka gorriak dituzte soinean eta orraztokietan ezkutatzen dira. Euren jabeari biraka-biraka hasten zaizkio oihu batean galdezka zer egin behar duten eta berehala betetzen dituzte nagusiaren aginduak, nahiz eta ikaragarrienak ere izan.

11.- Zazpi buru zituen sugea da. Leize batean bizi zen animaliak eta gizakiak jenez. Aspaldian lortu zuten akabatzea, eta harrezkero lasai bizi gara.

BASAJAUN  
MARI  
GALTZAGORRIAK

ILAZKI  
JENTILAK  
SUGAAR

LAMIA  
AKERBELTZ  
TARTALO

EGUZKI  
HERENSUGEA



# JOLAS NAHAS

## EUSKAL MITOLOGIako PERTSONAIak II

Gure mitologiako pertsonaiek zerrenda luzea osatzen dute eta hamaika kondaira ere utzi dute herriko tradizioan. Oraingoan pertsonaia horien irudiak prestatu ditugu beheitiko izenekin parekatzeko. Aitzineko orriko oharrek lagunduko dizute.

A.



B.



C.



D.



E.



F.



G.



H.



I.



J.



K.



L.



AKERBELTZ

EGUZKI

JENTILA

AMA LUR

ILARGI

HERENSUGEA

MARI

GALTZAGORRI

BASAJAUN/BASANDERE

GAUEKO

LAMIA

TARTALO

# BITXILOREAK

## LAMIAK GURE INGURUAN

Pertsonaia mitologikoak historikoki hagitz erroturik azaldu dira Euskal Herriko tradizioan. Baztan-Bidasoan ere hamaika istorio xeble ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi bizirik mantendu dira. Istorio xeble horietan laminak maiz agertzen dira hainbat kontaktetan. Zuenean ba ote? Testuan hitz batzuk kendu ditugu eta beheko multzoetan sartu. Bila itzazu zuzenak.

**ERNE SARIRAKO!**



Bertizaranan diotenez, laminak Erreparatz etxera joaten ziren eta umeekin jostatzen ziren. Denok dakigun bezala ederrak ziren eta ispilu \_\_\_\_\_1\_\_\_\_\_ orraztu eta orraztu aritzen omen ziren. Tradizioaren arabera ere jakina da lamiei ederki kostatzen \_\_\_\_\_2\_\_\_\_\_ umeak izatea eta horregatik erreka bazterretan jostetan ibiltzen ziren eta batzuetan umeak desagertzen omen ziren. Behin, ba omen zen mutil bat laminekin joan zena eta hamar urtetan ez omen zuten bere berririk izan. Denbora hori emanda haur txiki batekin azaldu omen zen, handik denbora txikira mutilaren amak biak hartu eta betiko desagertu omen ziren.

Urrotzen, *Frantzisku Zokoan* laminak bizi omen ziren. Behin, bertako amatxi bati oparia eman omen zioten, baina alde egiterakoan gibelera ez begiratzeko erran omen zioten. Hark jakin-minari ezin eutsi, eta gibelera begiratu omen zuen. Orduan, \_\_\_\_\_3\_\_\_\_\_ oparia kendu egin omen zioten.

Ultzamako etxe bat laminek eraiki omen zuten eta ordainetan etxeko nagusiak gauero gaztanberaz betetako kaiku bat uzten omen zien (izugarri gustatzen omen zaie gutizia hori) eta, orduan, laminek kaikua urrez betetzen zuten. Egun batean, ordea, etxeko nagusiak txantxa egin nahian, kaikua ardi kakaz bete zuen eta gaztanberaz estali. Lamina berehala ohartu zen eta haserre bizian etxe hori betiko madarikatu egin omen zuen: "*Etxe hartan geroztik ez zen faltako ez erorik, ez elbarririk, ezta \_\_\_\_\_4\_\_\_\_\_ ere*". Eta diotenez, hala izan omen da.

Sunbillan, herriko zubi polita egin behar zenean, bertakoek Bidasoko laminei laguntza eskatu omen \_\_\_\_\_5\_\_\_\_\_. Haiek ados, baina apustu baten truke; baietz zubia argitu baino lehen bukatu, eta ondorioz baietz arimak eramane. Bertakoek ezetz hautatu behar. Oilarrak kukurrukuka egin baino lehen zubia egin ez bazen, lamiak esku-hutsik joane omen ziren. Inguru hartako laminek beti sumatzen zituzten oilarrak eguna argitzean, eta horregatik proposatu omen zuten norgehiagoka. Kondairak dioenaren arabera, gau hartan lamina anitz aritu omen ziren buru-belarri Mendaur eta inguruetak bazterretatik harri politak garraiatzen eta zubia altxatzen, ziztu bizian gainera. Hori ikusita, sunbilda bati gogoratu omen zitzaion herriko oilarrak bildu eta borda batera \_\_\_\_\_6\_\_\_\_\_. Bertan, su \_\_\_\_\_7\_\_\_\_\_ bat piztu omen zuen eta hainbesteko argitasuna zegoenez, oilarrak kukurruka batean hasi omen ziren. Une hartan lamina batek zubiko \_\_\_\_\_8\_\_\_\_\_ harria bizkarrean omen zeraman bere tokian \_\_\_\_\_9\_\_\_\_\_ asmoz, baina hori egin beharrean, Bidasoa erreka bota omen zuen. Geroztik, Sunbillako zubiari harri bat falta omen zaio, ez dute beste bat paratu, bertakoen arimak galtzeko arrisku gogorra izaten ahal \_\_\_\_\_10\_\_\_\_\_.

1.- a) antzinean  
b) aitzinean  
c) aintzinean

2.- a) zitzaiela  
b) zitzaiakziela  
c) zitzaiola

3.- a) laminak  
b) laminari  
c) laminek

4.- a) totelarik  
b) toteleik  
c) totelik

5.- a) zioten  
b) zieten  
c) zuten

6.- a) eramatea  
b) eramaten  
c) eramatera

7.- a) haundi  
b) aundi  
c) handi

8.- a) ondarreko  
b) hondarko  
c) hondarreko

9.- a) paratu  
b) paratzeko  
c) paratuz

10.- a) bait da  
b) bait-da  
c) baita

# ERANTZUNAK

## LAN eta LAN (3. or.):

1- G; 2- E; 3- G; 4- G; 5- E; 6- E; 7- G; 8- G; 9- G; 10- E

## MITOmania (4. or.):

Basajaun- 5; Mari- 1; Galtzagorriak- 10; Ilazki- 2; Jentilak- 8; Sugaar- 4; Lamia- 6; Akerbeltz- 9; Tartalo- 7; Eguzkia- 3; Herensugea- 11

## JOLAS NAHAS (5. or.):

Akerbeltz- E / Eguzki- J / Jentila- H / Ama Lur- C / Ilargi- G / Herensugea- L / Galtzagorri- I  
Basajaun/Basandere- B / Gaueko- K / Mari- A / Lamia- D / Tartalo- F

## 140. aleko sariketa erantzunak – Bitxiloreak – babarrunak (5. or.):

1- c; 2- a; 3- b; 4- c; 5- c; 6- b; 7- a; 8- c; 9- c; 10- b

## ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **6. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

### Saria:

Lesakako LINDDURRENBORDA  
sagardotegian  
bi lagunentzako otordua

### 140. aleko irabazlea:

Juli Arizaleta Etxenike  
Arraiozkoa

## ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondón; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak otsailaren 13a baino lehen bidali itzazu.



## SARIRAKO ARIKETA


### BITXILOREAK (6. or.):

Lamiak gure inguruan

- |           |            |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 6 - _____  |
| 2 - _____ | 7 - _____  |
| 3 - _____ | 8 - _____  |
| 4 - _____ | 9 - _____  |
| 5 - _____ | 10 - _____ |



# EUSKARA berri on!!



**EUSKARA**  
gaztetu nahi duzu?

Solasa aberastu,  
irakurriz eta idatziz  
giro ederrean  
trebatu eta ikasi!

**Zatoz gurera!**

Zeure herrian,  
Ekainera arte,  
asteen 4 ordu

**MAILA GUZTIAK**  
eta EGA  
(ON LINE ere bai)

Matrikula zaitez:

IKAbortziriak, 948 637 796,  
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eu  
IKAmalerreka, 948 451 555,  
malerreka@ikaeuskaltegiak.eu  
IKAleitza, 948 610 776,  
leitza@ikaeuskaltegiak.eu

euskara  
errazago-  
egiten **ika**

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta  
Malerrekako IKA  
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak  
eta maketazioa:

**Joseba Larratxe**

Laguntzaileak:

**Bortziriak eta Malerrekako  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEAK  
eta Baztango Udala**



## ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

## HORRA GURE HELBIDEAK

**Bortzirietako IKA Euskaltegia. Arretxea 22 31770 Lesaka**

**Malerrekako IKA Euskaltegia. Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.**

